

# BESTELAKO XEDAPENAK

## EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

### 1531

*AGINDUA, 2021eko martxoaren 9koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, zeinaren bidez argitaratzen baita enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren programarako deialdia, COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko; programa hori martxoaren 9ko 106/2021 Dekretuan arautzen da.*

Martxoaren 9ko 106/2021 Dekretuaren bidez, enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren 2021eko programa garatzen da, COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko; dekretu horrek finantzaketa-lerro bat ezartzen du talde horientzat, gehienez 500 milioi euroko zuzkidurarekin, zirkulatzaille-beharrei erantzun eta egitura-gastuak estal ditzaten.

Dekretuan, honako alderdi hauek daude araututa: kreditua lortzeko baldintzak, entitate onuradunak, baliabideen erabilgarritasuna, maileguen baldintzak eta elkar bermatzeko sozietateekin eta finantza-erakunde laguntzaileekin jarraituko diren izapidetze-prozedurak. Horretarako, Ekonomia eta Ogasun Sailak beharrezkoak diren lankidetzak hitzarmenak sinatu ditu programari atxikita dauden finantza-erakundeekin.

Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, finantzaketa-lerroaren lehenengo deialdia egin behar da eta, horretarako, beharrezkoak diren arauak emango dira. Horiek horrela, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da martxoaren 9ko 106/2021 Dekretuan aurreikusitako finantzaketa-lerroaren lehenengo deialdia egitea; dekretu horrek enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren 2021eko programa garatzen du, COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko.

Lehenengo deialdiaren zuzkidura 250 milioi euro da.

Deialdi honetan, 150 milioi euro bermatzen dira, gutxienez, COVID-19ak gehien kolpatu dituen sektoreetako enpresa txikientzat eta enpresaburu autonomoentzat; haiei egiten die erreferentzia, hain zuzen ere, 106/2021 Dekretuaren 6.2 artikuluan 5.000 eurotik 25.000 eurora bitarteko maileguetarako gaitu den lerroak.

Hala ere, Ekonomia eta Ogasun Sailak zenbatekoak berresleitu ahal izango ditu, baldin eta dekretuaren xede den talderen baten finantzaketa-eskaria nahikoa ez bada.

I. eranskinean, elkar bermatzeko sozietate laguntzaileen zerrenda dago jasota; sozietate horiei bidali behar zaizkie eskaerak. II. eranskinean, berriz, finantza-erakunde laguntzaileak zehazten dira.

##### 2. artikulua.– Eskabideak.

1.– Eskabideak eta gainerako dokumentuak I. eranskinean jasota dauden elkar bermatzeko sozietate laguntzaileetan aurkeztu behar dira, bitarteko telematikoak erabiliz.

2.– Interneteko helbide honetan eskura daiteke eskabide-ereduei, formularioei eta elkar bermatzeko sozietate laguntzaileen estekari buruzko informazioa, zeina beharrezkoa baita eskabideak bete eta aurkeztu ahal izateko: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

3.– Deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

4.– Agindu honen lehenengo artikuluan ezarritako mailegu-bolumena agortu arte onartuko dira finantza-laguntza emateko programan sartzeko eskabideak, edo, bestela, artikuluko horretan bertan aurreikusitako gehikuntzaren ondorioz ezartzen den bolumena agortu arte. Elkar bermatzeko sozietate laguntzaileetan noiz entregatu diren eskabideak, hurrenkera horren arabera sartuko dira programan. Maileguen bolumena agortzen denean, gorabehera horren berri emango da, Finantza eta Aurrekontuetako sailburuordearen ebazpen baten bidez (ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da).

#### AZKEN XEDAPENA

Deialdia egiteko agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 9a.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,  
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.

## I. ERANSKINA

### ELKAR BERMATZEKO SOZINETATE LAGUNTZAILEAK

Elkargi elkar bermatzeko sozietatea: [www.elkargi.es](http://www.elkargi.es)

<https://www.elkargionline.com/> (eskabideak bitarteko telematikoen bidez aurkezteko).

## II. ERANSKINA

## FINANTZA-ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

## Bankuak:

- Kutxabank SA
- Banco Sabadell SA
- Bankinter SA
- Banco Santander SA
- Bankoa SA
- Bbva SA
- Caixabank SA
- Abanca SA
- Arquia Bank SA
- Fiare Banca Ética
- Bankia SA

## Kreditu-kooperatibak:

- Laboral Kutxa KSK
- Rural Kutxa KSK

Finantzen Euskal Institutua